

7/11

irizpena

BITARTEKIAREN ERREGISTROAREN
Dekretu Proiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2011ko martxoak 23an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euzkadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 7/11

I. AURREKARIAK

2011ko otsailaren 23an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazkia jaso da, Bitartekarien Erregistroaren Dekretu Proiektuari buruzko txostenaren eskaera eginda, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoari helduta.

Planteatutako lege-ekimenaren xedea Familia bitartekaritzaren otsailaren 8ko 1/2008 Legearen agindua arauz garatzea da, hots, horrek sortzen duen Bitartekarien Erregistroa arautzea, erregistro horretan inskribatutako pertsonak egiaztatu beharreko familia bitartekaritza zehatza prestatzeko edukia zehaztuta, betiere bitartekarien prestakuntza egokia familia bitartekaritzaren kalitatea hobea izan, eta ondorenez, familia bitartekaritzaren erabiltzaileak babesteko faktorea dela kontuan izanda. Era berean, Dekretuan Erregistroa modu erabilgarrian erabiltzeko jarraibideak ezarri dira.

Horren kopia berehala Batzordearen osoko bilkuran esku hartutako kide guztiei bidali zitzairen, euren proposamenak eta iritzia igorri eta horiek lan-batzorde egokiari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoa aintzat hartuta. Martxoaren 14an Gizartearen Garapenerako Batzordea bildu eta, eta adostutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpen Proiektu hau onetsi da, hori 2011ko martxoaren 23an Batzordearen Osoko Bilkurari helarazteko, eta bertan aho batez onetsi da.

II. EDUKIA

Bitartekarien Erregistroaren Dekretu Proiektuaren testua modu honetan bereizita dago: Aitzinsolasa, 18 artikulua, hiru xedapen gehigarri, hiru xedapen indargabetzaile eta azken xedapen bat. Laburbilduz, hau da horren edukia.

Familia bitartekaritzaren otsailaren 8ko **1/2008 Legearen** bidez Bitartekarien Erregistroa sortu da, batik bat, bitartekaritza legez eskatutako betekizunak betetzen dituzten pertsonak betetzen dutela bermatzeko, eta herritarrek bertan inskribatutako bitartekariak ezagutzeko tresna gisa. Halaber, **9. artikuluan** xedatutakoaren aiora, bitartekari gisa jarduteko beharrezkoa izango da hori Bitartekarien Erregistroan inskribatzea, eta inskripzio hori lortzeko, Zuzenbidean, Psikologian, Pedagogian edo Psikopedagogian lizentziaduna edo Gizarte Lanean edo Gizarte Hezkuntzan diplomaduna dela edo prestakuntza horri begira Legean jasotako titulu baliokidea duela egiaztatzeaz gain, ezinbestekoa izango da familia bitartekaritzarako prestakuntza zehatza, behar bestekoa eta etengabea duela frogatzea. Hain zuzen ere, hori Eusko Jaurlaritzak arauz garatu beharko du, eta nolahi ere, gutxienez ere 200 orduko ikastaro teoriko-praktikoa egin beharko da.

Gisa berean, familia bitartekaritzari buruzko Legearen **17.2 artikuluan** ezarritakoaren aiora, Bitartekarien Erregistroaren eraketa, eginkizunak, prozedura eta ziurtagirien igorpena arauz garatu beharko da, eta Azken Xedapenetatik Lehenengoan, ondore horretarako, urtebeteko epea ezarri da, hori indarrean jartzen denetik zenbatuta.

Dekretu horretan, bitartekariak Erregistroan inskribatzeko izan behar duten familia bitartekaritzaren prestaketa zehatzaren edukia zehaztu da, eta era berean, hori modu erabilgarrian erabiltzeko jarraibideak ezarri dira.

Bestalde, gaur egungo familia bitartekaritzarako ikastaroak Dekretuan ezarritako familia bitartekaritzarako prestakuntzaren edukietara egokitzen ez badira, 2013ko irailak 1 arte geroratuko da eskakizun hori jasotzen duen aginduaren indarraldia. Hori dela medio, unibertsitateek eta lanbide-elkargoek eskatutako edukietara doitutako ikastaroak antolatu ahal izango dituzte, horiek homologatuta gera daitezten.

Lehenbizi, **I.Kapituluan** ezarritakoaren arabera, **Xedapen Orokorrei** buruzkoan, Familia Bitartekaritzaren otsailaren 8ko 1/2008 Legearen bidez sortutako Euskal Herriko Bitartekarien Erregistroak administrazio-izaera du, eta familia bitartekaritza aipatutako Legean deskribatutako

baldintzetan gauzatu ahal izateko, beharrezkoa izango da aurretiaz Erregistro horretan inskribatzea. Administrazio-organoaren eginkizunak inskripzioaren eta berriztatzearen eskabideekin zerikusia duten prozeduren izapideak egitea da, bai eta datuen aldaketak nahiz ezerezteen eskabideak komunikatzea, eta Erregistroan jasotako datuak ziurtatzea eta argitaratzea ere.

II. Kapitulan, Bitartekariak Erregistroan inskribatzeko betekizunak izenekoan adierazitakoaren aiora, Erregistroan inskribatzeko, Familia bitartekaritzaren Legearen 9. artikuluan aipatutako ikasketa-titulazio ofizialaz gain, unibertsitateek edo lanbide-zentroek eskainitako familia bitartekaritzarako prestaketa zehatza egin duela egiaztatu beharko da, gutxienez ere 200 orduko iraupenarekin, eta Dekretu horren eranskinean jasotako edukiekin. Prestakuntza-ikastaro horiek familia bitartekaritzarako Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritza eskudunak homologatuta egon beharko dira, Jarraian, familia bitartekaritzarako ikastaroak homologatzeko eskabidea egiteko administrazio-prozedura arautu da.

7/11 

III. Kapitulan, Erregistroaren eta erregistroko idazpenen egitura izenekoan, 5. artikuluan puntu hauek jaso dira: inskripzioaren idazpenak, orri-bazterreko oharra eta ezerezteak Erregistroan, bai eta okerrak zuzentzeko prozedura ere. Jarraian, **IV. Kapitulan Inskripzio Prozedura** deskribatu da, horren indarraldia bost urtekoa izango dela ezarrita, eta epe hori igarota berriztatu egin beharko da.

V. Kapitulan, Erregistroaren Kontsulta izenekoan adierazi den bezala, hori kontsultatzeko eskubidea izango dute interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsonak, eta informazio-eskabide guztiak idatziz egin beharko dira, ezagutzen diren inguruabar guztiak aurkeztuta, datuen bilaketa ahalbidetuta.

Ostean, **Xedapen Gehigarrietan** adierazten den bezala, lehenbizi, unibertsitateko titulu ofizialen antolamendu berria kontuan izanda, Bitartekarien Erregistroan inskribatzeko, edozein kasutan ere, Zuzenbidean, Psikologian, Pedagogian, edo Psikopedagogian lizentziaduna edo Gi-

zarte Lanean edo Gizarte Hezkuntza diplomaduna dela edo kasuan kasuko graduko titulua duela egiaztatu beharko da. Gisa bertsuan, herritarrek informazioa jaso ahal izateko, Interneten inskribatutako bitartekarien zerrenda argitaratuko da, eta hori pertsona orok kontsultatu ahal izango da.

Amaitzeko, **Xedapen Iragankorretan** ezarritakoaren arabera, familia bitartekaritzaren jarduera Familia bitartekaritzaren Legean indarrean jarri ostean eta Dekretu hau indarrean jarri baino lehen egiaztatu bada, hori Bitartekariak Erregistroan inskribatzeko eskatutako familia bitartekaritzaren prestakuntza zehatzaren baliokidetzat joko da. Horretarako, gutxienez ere betekizunak betetzen dituzten familia bitartekaritzaren 10 prozedura gauzatu direla egiaztatu beharko da.

Amaitzeko, Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren arabera, familia bitartekaritzaren jarduera Familia bitartekaritzaren Legean indarrean jarri ostean eta Dekretu hau indarrean jarri baino lehen egiaztatu bada, hori Bitartekariak Erregistroan inskribatzeko eskatutako familia bitartekaritzaren prestakuntza zehatzaren baliokidetzat joko da.

III. OHARRAK

OHAR OROKORRAK

Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legearen 12. artikuluan hau ezarri da: *“prozedura boluntarioa da, eta bitartekaritzan prestakuntza duten profesional batek baino gehiagok, inpartzialak direnak eta erabakitzeke ahalmenik ez dutenak, alderdiei laguntzen diete eta orientatu egiten dituzte familiako gatazka amaitzen lagundu dezaketen konponbide onargarrietarako elkarrizketa-prozeduren inguruan.”*.

Prozedura horiek justiziarengana hobeto jotzeko testuinguruan inskribatzen dira, funtsean baliabideak hobetu ahal izateko. Legean adierazi den bezala, eginkizun osagarria eta/edo alternatiboa betetzen dute jurisdikzio-prozedurei dagokienez, gatazka batzuei begira modu egokian egokitzen

diren neurrian, alderdien arteko elkarrizketa ahalbidetuta. Zio hori dela medio, jorratutako gaiak behar bezalako kalitatearekin garatu behar dira.

Bitartekariaren profila profesional espezializatua, inpartziala eta independentea da, eta horren jarduketa alderdiek hala eskatuta gauzatzen da, horien artean komunikazio-bideak ireki ahal izateko, horretarako, familia gatazkak modu behar bezala konpontzeko prozedura eskainita. Halaber, funtsezkoa da, testuinguru horretan, prestakuntza eta kualifikazio egokiak bermatzea. Oro har, bitartekaritza-zerbitzuaren kalitatea eta erabiltzaileen babesa erdietsiko dira.

Hori guztia gorabehera, Batzordeak kontsultatutako arauketa-proiektuaren xedeak partekatu dira, hots, bitartekariak izan beharreko prestakuntza zehatzaren edukia zehaztu eta helburu horretarako sortutako Erregistroan egindako horren inskripzioa arautzea, betiere egokitzat jota, oro har, Dekretu hori garatutako baldintzak.

Bitartekarien Erregistroa bitartekaritza Familia Bitartekaritzari buruzko Legean eskatutako betekizunak betetzen dituzten pertsonak behar bezala egiten dela bermatzen duen beharizanaren ondorioz sortu da, eta aldi berean, pertsona guztiek zerbitzuak bitartekari gisa eskaintzen dituzten profesionalak ezagutzeko tresna gisa antolatu da. Hain zuzen ere, hori modu positiboan baloratu dugu

Ohar orokor horiek amaitu ostean, EGABren ustez beharrezkoa da ondoko ohar zehatzak igortzea:

OHAR ZEHATZAK

7.a) artikulua.- Erregistroko idazpenak eta 10.3. Inskripzio-prozeduren hasiera

Bi artikulua horietan adierazitakoaren ariora, Bitartekarien Erregistroan inskribatzeko "ikasketa-titulazio ofiziala" egiaztatu behar da, familia bitartekaritza garatzeko betekizun gisa.

Batzorde horrek adierazpen hau gehitzea proposatu du: *"... eta inskripzioa lanbide-elkargo egokian ziurtatzea, lanbidea betetzeko elkargoko kide izatea aginduzkoa denean", bitartekaritza garatzeko egokitasuna berme gehiago eskaintzeko xedearekin.*

14.2. artikulua. Inskripzioaren indarraldia

Halaber, gutxienez ere inskripzioaren indarraldiaren epemuga iritsi baino hiru hilabeteko aurrerapenarekin, interesdunari inguruabar hori komunikatuko zaio, inskripzioa epe hori amaitu baino lehen berriztatzen ez bada inskripzio-idazpena ezereztu egingo da.

Gure ustez, berriztatzea egiteko epea oso luzea da, eta hori murriztu beharko litzateke, esaterako, hilabeteko epera, jakinarazpena egiten denetik zenbatuta.

18.2. artikulua. Ziurtagiriak

Artikulu horren bigarren atalaren idazketa osatzeko proposamena egin dugu, betiere ondoko baldintzetan:

"2.- Ziurtagiri positiboak osoak edo zati batekoak izango dira, eta bi kasu horietan Dekretu honetan araututako Erregistroaren edukiari buruzkoak izango dira, Datuen Babeserako Legea errespetatuta, eskabidea hirugarrenak egiten badu".

Bigarren Xedapen Gehigarria: Bitartekarien Erregistroan inskribatutako bitartekarien zerrenda

Aipatutako zerrendan jasotako datuen artean bitartekariaren helbidea jasotzen da. Gure iritziz, horri "soziala/profesionala" adierazpena gehitu behar zaio.

Hirugarren Xedapen Iragankorra

"Bitartekarien Erregistroa 2013ko irailaren 1ean funtzionamenduan hasiko dela" ezarri da.

Unibertsitateen eta lanbide-elkargoen prestakuntza-eskaintza bitartekaritzaz garatzeko ezagutzen eskakizunetara egokitzeko behar besteko epea ezarri dela badirudi ere, gure iritziz ez da egokia Bitartekarien Erregistroa ordu arte funtzionamenduan ez hastea.

Bitartekaritza-jarduera izatez gaur egun garatzen dela kontuan izanda, eta horrez gain, Dekretu horren bidez, inskripzioa eskatutako prestakuntza ordeztan duten baldintza zehatz batzuk egiaztatuta egitea jaso dela aintzat hartuta, gure iritziz, Bitartekarien Erregistroa ahal den azkarren funtzionamenduan hasi behar da, xedapen indargabetzaile zehatzen bidez, betiere 2013ko iraila iritsi arteko epea igaro bitartean.

IV. ONDORIOAK

EGABren ustez egokia da Bitartekarien Erregistroaren Dekretu Proiektuaren izapidetza egitea, organo aholku-emaile horren egindako oharrak kontuan izanda.

Billbon, 2011ko martxoaren 23an

Batzordeburuaren OE
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Gran Vía 81, 7. solairua

48011 Bilbo, Bizkaia

www.cekvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarros Comunicación

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-874-11